

BESTE EKONOMIA BAT(ZU)ETARAKO TRANTSIZIOA(K)



Aurkibidea

Zergatik «trantsizioa(k)»?	2
Zergatik «beste batzuk»?	2
Zergatik «ekonomia(k)»	3
Afinitatearen arabera multzokatze-taula	3
Berdea	4
Urdina	4
Zirkularra	5
Funtzionaltasunarena	5
Digitala	5
Elkarlanekoa / Partekatua	6
Irekia (kode irekia) eta askea (ezagutza askea)	6
Onbideragarria	7
Positiboa	8
Inpaktukoa	8
Guztion onerako ekonomia	9
Gizarte Ekonomia	10
Gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioa	10
Feminista	11
«Trantsizioa»	11
Desazkundearena	12
Nazioarteko adibideak	13
Euskal Herriko adibideak	19

Zergatik «trantsizioa(k)»?

Egungo abaguneak eta etorkizunerako aurreikuspenek (egoera posible edo desiragarrien aurreikuspenek) horixe adierazten dutelako. Garai historikoa bizi dugu: kapitalismo iraunkorrako baterako prozesuaren hastapena. Antza denez, orain arte ezagutu ditugun beste utopia handiek ez dute arrakastarik lortu eta, munduak dituen erronka itzelen aurrean, beste iraunkortasun-ikuspegi batzuk egituratzeko saioa ageri da orain.

Hemendik 2030. urtera arte, mundua goitik behera aldatuta egongo da: munduko biztanleria; planetaren batez besteko tenperatura; garabidean dauden herrialdeetan geroz eta klase ertain ugariagoa, geroz eta eskakizun gehiagorekin; Txinaren BPGd-a; India munduko hirugarren potentzia ekonomikoa; energiaren eta lehengaien kontsumoa planetaren birsortze-gaitasunaren gainetik...

Izan ere, dena abian dago, baina gu ohartu ere egin gabe edo horretaz erabat jabetu gabe. Hasieran gaude; hasiera apala, ikusezina, bazterrekoa, sakabanatua... baina hasiera. Kontinente guztietan hamaika tokiko ekimen daude abian, ekonomia, gizartea, politika, ezagutza, hezkuntza, etnia eta bizimodua bera onbideratzeko asmotan. Sorkuntza pil-pilean dagoela esan genezake.

Zergatik «beste batzuk»?

Agerikoa denez, zerbait egin beharko dugulako gizartean, ingurumenean, demografian eta ekonomian ditugun erronka orokor eta elkarlotuei erantzuteko. Gaur egungo ekonomia-ereduan funtsezkoa dirudiena aldatzeko gizarteak dituen eztabaida, beharrian eta erronketatik hurbilago daude «beste» ekonomia horiek. Alor horietan guztietan, esparru guztiek, baina batez ere enpresa handiek, «irabazle-irabazle» egoerak eskuratzeko formulak saiatzen dituzte euren interes-taldeekin.

“ekonomian biltzen dira edozein aldaketa-ekimenek inpaktu handiagoa lortzeko akupuntura-puntuak” -P.TARAK

- Berdea
- Urdina
- Zirkularra
- Funtzionaltasunarena
- Digitala
- Elkarlanekoa / Partekatua
- Irekia (kode irekia) eta askea (ezagutza askea)
- Onbideragarria
- Positiboa
- Inpaktukoa
- Guztion onerako ekonomia
- Soziala
- Soziala eta elkartasunekoa
- Feminista
- Trantsizioarena
- Desazkundearena

Hartara, epe laburreko ikuspegia, espekulazioa, araubide okerra... atzean utzi eta bizitza-eremu berriak sortu behar dira, gizakiaren beharrezko erantzuteko: iraupena, segurtasuna, osasuna, norbere buruarekiko eta inorekiko errespetua, lankidetzak, autonomia etab... Beste aurrerakuntza modu bat azaleratu behar dugu.

Zergatik «ekonomia(k)»

Ekonomia berriak sustatzeko beharizan orokorra dago; izan ere, lider gehiegiren iritzian, «*ekonomian biltzen dira edozein aldaketa-ekimenek inpaktu handiagoa lortzeko akupuntura-puntuak*» (P. Tarak). Balio sortzeko estrategia hibridoak bilatu behar ditugu, berrikuntzak eta benetako gizarte-onura lotuz, paradigma ekonomiko berri baterantz abiatzeko. Gizarte-berrikuntza da erronka horietarako irtenbidea, iraunkortasun hirukoitzari (ekonomiaren, ingurumenaren eta gizartearen iraunkortasunari) lotutako funtzionaltasunen eta utilitateen bidez eragiten baitu jardura ekonomikoan. Hori abiarazteko, jardura ekonomikoan garrantzi handia duen fenomeno bat hartu behar dugu aintzat: ekintzailtza; eta, bereziki, gizarte-ekintzailtza.

Afinitatearen arabeko multzokatze-taula

Abszisen ardatzean, gizarte-berrikuntzan oinarritutako utilitateak:

- Sortzailea, pertsona jardura ekonomikora hurbilazteko funtsezko aldaketak planteatzen dituelako (zergatik eta zertarako), eta ekonomia pertsonen eta planetaren zerbitzuan jarri nahi duelako.
- Erreformista; oinarrian, gaur egungo sistema ekonomikoaren kanpo-efektu batzuei erantzuten ahalegintzen delako. Eta, aldi berean, ekonomia parte-hartzaileagoa sortu nahi duelako.
- Aurreratzaila; nagusi diren bizimodu eta balioen bilakaerarekin batera datozen eredu disruptiboak adierazten dituelako, iraunkortasunean, digitaletan eta efizientzian oinarrituta.

Ordenatuen ardatzean, nagusi den iraunkortasun motan oinarrituta (ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren iraunkortasunean oinarrituta).

	SORTZAILEA	ERREFORMISTA	AURRERATZAILEA
INGURUMENEAN	Trantsizioa	Berdea Urdina> Zirkularra	Onbideragarria
GIZARTEAN	Soziala eta elkartasuneko Feminista	Funtzionaltasunarena Digitala Positiboa	Elkarlanekoa / Partekatua Irekia / Askea
EKONOMIAN	Desazkundearena	Soziala Guztion onerakoa	Inpaktukoa

Berdea

2008ko amaieran, Ekonomia Berdea izeneko programa jarri zuen abian Nazio Batuen Ingurumen Programak (NBIP), XXI. mendeko gizateriak hainbat alorretan (ekonomian, energian, kliman, elikaduran...) jasaten duen krisiari erantzuteko asmoz. 2009an, New Green Deal («Hitzarmen Berde Berri Globala») izeneko txostena argitaratu zen, alor pribatua eta publikoa sektore eta enplegu berdearen aldeko apustua egitea eta ingurumena kaltetzen duten jardunak «birberdetzea» proposatuz. Honela definitzen du NBIPk Ekonomia Berdearen kontzeptua: «ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenari, banaketari eta kontsumoari lotutako jardura ekonomikoen sistema da, gizakiaren ongizatea eta gizarte-ekitatea sustatzeaz gain, ingurumen-arriskuak eta eskasia ekologikoa nabarmen murrizten dituena». Errazago, honela ere deskriba daiteke: «karbono gutxi eta baliabideak efizentziaz erabiltzen dituen ekonomia, arlo sozialean inklusiboa dena». Barbierrek, Pearcek eta Markandiyak ere hitz egin zuten Ekonomia Berdeaz (1989) *Blueprint for a Green Economy* argitalpenean. Izan ere, lan horretan, «gaur egungo beharrianak etorkizuneko belaunaldiak baldintzatu gabe» betetzeko hainbat jardura ekonomiko proposatu zituzten. Historiako krisi finantzario handientzat jotzen dutenaz jabetuta sortu zen NBERen ekimen hori, gizateriak energiaren, klimaren eta elikaduraren alorrean dituen erronkei erantzuteko asmoarekin.

2009ko martxoan, NBIPk «Hitzarmen Berde Berri Globala» (New Green Deal) txosten politikoa kaleratu zuen, erregai fosilak erabili eta karbonoa isurtzen duen egungo ekonomiatik Ekonomia Berderako trantsizioa burutzeko estrategiaren berri emanez. 1992ko Rioko Lehen Gailurrean lehen aldiz aipatu zen «Garapen Iraunkorra» kontzeptuaren hedaduratzat jotzen ditu Nazio Batuen Erakundeak Ekonomia Berdea eta Green New Deal-a. Hala, karbono-isuriak eta kutsadura murriztu, energia- eta baliabide-efizientzia handitu eta biodibertsitateari eta ekosistemari egindako kalteak arintzen laguntzen dutenak dira «sektore berdeak». Gainera, hobi ekologikoen aldeko apustuarekin batera, naturarekin zuzeneko loturarik ez duten sektoreak «birberdetzera» bideratutako inbertsioak ere estrategia horrextan kokatzen ditu NBIPk. «Garbiketa berdeaz» ari diren kritika ekologistak eta indigenak. «Birberdetze» horrek eta Ekonomia Berdeari buruzko planteamendu instituzionalak hasiera-hasieratik jaso zituzten kritikak, baina 2012ko Rio+20 gailurrean nabarmen-nabarmenak izan ziren, alde batetik bileraren helburuek huts egin zutelako eta, beste aldetik, sakoneko planteamenduarengatik berarengatik.

Urdina

Hauxe da «Ekonomia Urdinaren» abiapuntua: naturak eraginkortasun-maila handia lortzeko milioika urtean metatu duen ezagutza baliatu behar dugu ingurumena errespetatzeko eta aberastasuna sortzeko. Logika hori, gainera, enpresa-mundura eraman behar da. Proposamen hori Gunter Pauli Ecover enpresaren sortzailearen eskutik dator. Enpresa ekologiko aitzindari hori mundu osorako eredutzat jo izan dute, eta Pauliri dagokionez, ekonomia berdearen defendatzaile aktiboa izan da 35 urteko ibilbide profesionalean. Halere, ekonomista eta ekintzaile belgikar horren ustez, Ekonomia Berdeak aberatsentzat baino ez du balio, eta ez da oso iraunkorra. Ekonomia Urdinaren paradigma berria Lurrean inspiratzen da. Kontzeptu holistiko eta berritzailea da enpresa-planteamenduan: aski dugu ekosistema naturalak antzeratzea, herritarrak zorientsuak izateko behar diren ondasun eta zerbitzuak ekoizten efizienteak izateko, ardurak partekatzeko eta etorkizuneko belaunaldiekiko errespetuan jokatzeko. Ikusten dugunez, «cradle to cradle» eta Biomimesi teoriekin harreman-puntu ugari ditu.

Zirkularra

Gutxiago erabiliz gehiago egin behar dugula dio [Ellen MacArthur Foundation](#)ek, [McKinsey](#)ren eta [Accenture](#)ren, lanetan oinarrituta (Manuel Torresen artikulua «Kanpo Politika» webgunean, 172. zenbakian, 2016ko uztaila-abuztua). Eta gaur egun parez pare ditugun erronkei aurre egiteko, ondasunak fabrikatu eta kontsumitzeko modua aldatu behar dugu, balio gehiago sortzeko eta,aldi berean, baliabide gutxiago erabiltzeko, kostuak murrizteko eta ingurunean eragiten dugun inpaktua minimizatzeko.

Baliabide naturalen etengabeko erabileran (eta agortzean) oinarrituko ez den hazkunde ekonomikoa da ekonomia zirkularren helburua. Produktu, zerbitzu, eredu ekonomiko eta politika publiko berritzaileak bilatzen ditu. Berrerabilera eta birziklatzea (zentzurik zabalenean) sustatzen ditu eta hainbat bide azpimarratzen ditu ildo horretan: ondasunak pentsatu, ekoiztu eta kontsumitzeko modu berriak, produktuen erabilera luzatzea (zaharkitze programatuaren aurka), ondasunaren erabilera jabetzaren gainetik jartzea, osagaiak berrerabili eta birziklatzea, eta fabrikazio-prozesuetan produktu toxikorik ez erabiltzea. Fabrikazio-prozesu efizienteagoen eta ingurumena kudeatzeko sistema hobeen bidez, negozioak irabazle aterako dira, funtzionamendu-gastuak eta lehengaiakiko mendekotasuna murriztuko dituztelako, ondasun eta zerbitzuen fluxua optimizatu eta lehengaiaren zatirik onena eskuratuko dutelako, eta hondakinak behar-beharrezko zatirik txikienera gutxitzea lortuko dutelako. Diseinuan eta produktuen fabrikazioan berritzeko eskaera sortuko du ekonomia zirkularrak, balio-bizitza luzeagoa izango duten produktuak, berrerabili, konpondu eta desmuntatzeko aukera emango dutenak, eta osagaiak ere berrerabili eta birziklatu ahal izango direnak, sortzeko bidean.

Funtzionaltasunarena

[Funtzionaltasunaren ekonomia](#) (erabileraren ekonomia) zera da: ondasun bat saldu beharrean, ondasun horren funtzio berberak beteko dituen zerbitzua edo irtenbide integratua saltzea (hau da, autoa saldu beharrean, mugikortasuna saltzea; garbigailua saldu beharrean, garbiketa-zerbitzua saltzea...). Are gehiago, ondasunek eurek eskaintzen dutena baino funtzio gehiago edo hobeak saltzea, baina betiere baliabide eta energia gutxiago kontsumituz. Enpresa garrantzitsu askok negozio-eredua ildo horretan aldatzeko konpromisoa hartu dute dagoeneko, garapen iraunkorraren eskakizunak betetzeko eredu egokiena delakoan.

Laugarren Industria Iraultzaren gizartea sortzeko funtsezko eginkizuna du Funtzionaltasunaren Ekonomiak, jokabideetan eragiteaz gain, jabetzaren eta erabileraren nozioak birdefinitzea dakarrelako. Ekonomia-eredu horretan, produktu bat saldu beharrean, produktu horren erabilera saltzen da. Horrek esan nahi du produktu horrek kontsumitzailearentzat betetzen duen funtzioa balioztatzen duela eta, beraz, beharrian jakin bati erantzunez, erabileraren bidez lortzen diren mozkinetatik eskuratzen duela balioa, produktu horren jabetzak dakartzan mozkinetatik atera beharrean.

Digitala

90eko hamarkadaren amaieran Ekonomia Digitala edo Ekonomia Berria terminoa sortu zen, enpresa multzo handi bat informazio- eta komunikazio-teknologiak eta ezagutzaren gestioa izenekoak erabiltzen hasi zenean, •com izen orokorraren pean. Hala, Ekonomia Digitalak enpresa-errealitate jakin bat izendatzen du. Haren ezaugarriak: lehenengo eta behin, Internet —sareen sarea— negozioetarako etengabe erabiltzea, eta, bigarrenik,

erreferentziako balore-merkatu bat —Nasdaq eta geroago negozio berrientzako sortu diren beste balore-burtsa batzuk— izatea. Izan ere, Ekonomia Digitaleko enpresek aktibo fisiko garrantzitsurik ez dutenez, akzioak parametro ukiezinen arabera kotizatu eta baloratzen dira. Alegia: ezagutza, informazioa, berrikuntza, eta, azken buruan, puntako teknologiak erabiltzea eskatzen duten produktuen (ondasun eta zerbitzuen) sorkuntzara, ekoizpena, merkatura eta banaketara bideratutako adimena eta talentua.

Elkarlanekoa / Partekatua

Jabetza izatearen orde, partekatuz mundua aldaraztea da [elkarlaneko ekonomia](#)ren edo [elkarlaneko kontsumoaren](#) xedea, eta teknologia berriekin batera jorratuko den iraultza planteatzen du horretarako. Massachusettseko Institutu Teknologikoak (MIT) 110.000 milioi dolarreko (82.000 milioi euroko) potentziala kalkulatu dio, eta gaur egun bertan 26.000 milioi dolar inguru mugiarazten ditu. Forbes aldizkariaren esanetan, plataforma elektronikoen bidez ondasun eta zerbitzuak partekatu eta trukatzeko oinarritzen den sistema horretan pertsonalki parte hartzen dutenek 3.500 milioi dolarretik (2.580 milioi euro) gora poltsikoratzen dituzte. Arrakasta horren adibide asko eta asko daude Sarean. Hortxe dago, beharbada, benetako iraultza. Gizakiak senean eraman du beti jabetza; halere, zerbait aldatzen ari da. «*Denetarik soberan zegoen mundu batean egotetik, gehiengo batek gizarteak eskaintzen duena eskuratzeko aukerarik ez duen mundura igaro gara. Izan ere, gehiengoak ez du horretarako aukerarik izango, partekatzearen bidez ez bada*», adierazi du Rodolfo Carpentierrek, negozio berrietako inbertsiogileak. «*Jabetza izateko aukerarik ez duenarentzat, aski da probatzeko aukera izatea. Horrexegatik da mugimendu geldiezina*».

Kontsumitzeko beste modu bat da, «*digitalizazioaren eraginez, baina baita prezio-gehiegikeriari, zerbitzu txarrari eta araubide ezin txarragoari erantzunez ere*». Gure sisteman txertatutako Troiako Zaldia da, ez baita onargarria gure planetan 533.000 milioi dolar balio duten objektuak egotea, inoiz erabili ez arren. Eredu hori ziztu bizian biderkatzen ari da, eta dagoeneko halako 5.000 enpresa daude enpresa tradizionalekin lehian. Horregatik, eredu berri horrek zekartzan ondorio sakonez jabetuta, 2013an hori guztia ulertzeko zuzentarau bat kaleratu zuen Europar Batasunak: «Elkarlaneko kontsumoaren bidez, kontsumoaren ekonomiak ekoizpenaren ekonomia osatzen du, eta onurak dakartza berrikuntzan, ekonomian eta ekologian. Gainera, krisi ekonomikoa eta finantzariora gaitzen laguntzen du, beharrez dagoenean trukea egiteko aukera eskaintzen duen heinean». Nielsen merkatu-ikerketetarako enpresak adierazi duenez, espainiarren % 53 ondasunak partekatzeko edo alokatzeko prest dago, elkarlaneko kontsumoaren esparruan.

Irekia (kode irekia) eta askea (ezagutza askea)

Hona hemen ekonomia irekiaren hamar printzipioak, [Goteo](#)ren arabera:

1. Arrisku-kapitala: horrela esaten zaio instituzio eta enpresen ekarpenez osatutako «poto» bereziari. Baliabide kolektiboak erakartzeko prozesua osatzeaz gain, prozesua biderkatu ere egin dezake.
2. Kode irekia (open source): ez da software askea soilik; oro har, edozein produktu, zerbitzu edo jardueraren iturburu-kodea askatasunez eskuratu, birproduzitu eta banatzean datza (informazio edo ezagutza digitagarria, patroi, diseinu, metodologia, programazio, eskuliburu didaktiko... gisara).

3. Ezagutza askea: ezagutza ondasun publikotzat jotzen da. Ezagutza ez da ondasun agorgarria eta, aitzitik, zenbat eta gehiago erabili orduan eta gehiago garatzen da. Horregatik, ezagutza sortu, ikasi, baneratu, sistematizatu, transmititu eta erabiltzeko gizarte-baldintzak bultzatu behar dira.
4. Datu irekiak (open data): datu jakin batzuk mundu osoarentzat eskuragarri (copyrightik edo beste ezein kontrol-mekanismorik gabe) egotea bultzatzen duen filosofia eta jarduna da.
5. Finantzaketa kolektiboa (crowdfunding): pertsona askoren arteko elkarlana da, normalean Interneten bidez egiten dena, guztion helburu erkide bat edo pertsona, talde edo erakunde baten proiektu jakin bat bultzatzeko dirua biltzeko asmoarekin.
6. Lizentzia askeak edo irekiak: egiletza mantentzen den aldi berean, sorkuntza-lan osoa edo zati bat erreplikatzeari, plazaratzeari, banatzeari, aldatzeari edo ustiatzeari ahalbidetzen dute.
7. Nodoa: era zentralizatuan, deszentralizatuan nahiz banatuan elkarlotzen diren sareen konexioetako batzuek bat egiten duten tokia. Sare horietako bakoitza, aldi berean, nodoz osatuta egoten da. Kudeaketa nahiz administrazioa ahalik eta gehien deszentralizatzea da helburua.
8. Hardware irekia (open hardware): diseinua askatasunez eskura daitekeen hardwarea. Edonork hardwarearen diseinua aztertu, aldatu, banatu eta fabrikatzeko aukera du. Are gehiago, jatorrizko hardwarean oinarritutako diseinu eta hardwareak saltzeko aukera ere badu. Iturriak eskuragarriak dira, eta osagai, tresna eta dokumentazioak irekita eta prozesuak estandarizatuta daude.
9. Peer-to-peer (P2P): teknologia hori batez ere musika eta filmak trukatzeko erabiltzen bada ere, funtsean, baliabideak partekatu eta banatzeko gaitasunean oinarritzen da. Gizarte-prozesuen diseinu parte-hartzaile horretan inor ez da alboan gelditzen eta, horregatik, pentsa daiteke etorkizun hurbilean gure gizartearen logika nagusia bihur daitekeela P2P eredu espazio ez-digitalera eramatea.
10. Prokomuna (commons): “ondasun komunak” ere esaten zaio. Ondasun eta baliabide ukigarri nahiz ukiezinak komunitatean, publikoki eta kolektiboki partekatu, ekoitzi eta kudeatzea da. Gureak izan arren, mundu guztiak askatasunez erabili ahal izango ditu, zabaldu eta zaintzeko betebeharrarekin. Gobernantza-eredu ardurakidea da, komunitatean, konfiantzan, gardentasunean, elkartasuneko lanean, berdinen arteko trukean eta sarbide unibertsalean oinarritzen dena.

“Inoiz ez dugu ekonomia onbideragarriko (“restorative economy”) trantsizio arrakastatsurik burutuko, milioika pertsonarentzat pentsaera-sistemak bizikleta erabiltzea bezain naturalak izan arte”

Onbideragarria

“Change Observer” aldizkarian argitaratutako saiakera batean, [John Thackara](#) diseinatzaileak Ekonomia Berdearen (birziklatzean oinarritutako ekonomiaren) amaieraz eta ekonomia marroirako (lurraren onbideratzean oinarritutako ekonomiarako) bilakaeraz hitz egin zuen. Epaimahai bateko kidea zen eta gizateriaren arazo handietakoren bat konpontzeko gai izango zen ekimen ausarta, aurreratzailerak eta, aldi berean, ukigarria, saritzeko eginkizuna zuen. Proiektu horrek atzean utzi behar zituen egungo negozioen «hiru fantasia ezinezkoak» (halaxe

izendatu zituen [Chris Seeley](#)k *The Fool and the Great Turning* lanean: «Hazkunde mugagabearen fantasia, ondoriorik gabeko ekintzen fantasia, eta gizakiak naturatik bereizi dauden fantasia».

[Jonathan Dawson](#)en arabera (Schumacher College-UK), Ekonomia Onbideragarriaren bitartez, ekintzaitzaletza etikoa, sortzailea, ekologikoa eta kooperatiboa abian jartzeko gakoak eskaini nahi dira, ekosistema naturalak ekonomiara eta gizartera eramanez, gaur egun ekonomian, lan-esparruan, gizartean eta ingurumenean dauden erronkei erantzuteko. Helburua zera da: ekosistema naturalen barne-logika ulertzea eta ekonomian txertatzea, paradigma ekonomiko jori eta ekologikoki bideragarria sortzeko.

Positiboa

Jacques Attaliren ustez, gure eredu ekonomikoa agortzen ari da. Bost urtetik hona, BPGd-aren hazkundera moteldu eta murriztu ere egin da. Halere, bizi-itxaropena luzatu egin da, eta mugikorrek, tabletek eta gizarte-sareek jendearen bizimodua aldatu egin dute, merkataritzara bideratuta ez dauden jardueren bidez. Bizi-mailaren eta hazkunderaren arteko lotura gero eta etenago dago, eta fenomeno hori handitu egingo da, gainera. Orain arte egin duguna «gehiago» eginez ez dugu lortuko eraldaketa horiei aurre egitea eta, horrenbestez, beste eredu bat jorratu behar dugu. Hain zuzen ere, eredu berri horren aurrerapen batzuk ikus ditzakegu ekonomia positiboa delakoan.

[Ekonomia positiboa](#) esaldi batean labur daiteke: ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituzten erakunde guztiak (berdin dio merkataritza-erakundeak izan ala ez) bilduko dituen ekonomia, enplegatu, bezero, komunitate eta etorkizuneko belaunaldientzat era bideragarrian eta baliagarrian. Ekonomia positiboa ekintza da. Morala, bere horretan, abstraktuegia da, eta ekonomia positiboa ez da betiketuko, baldin eta pragmatismoan, benetakoan eta zehatzean kokatzen ez bada. Ez da ideologia, gizateriak bere buruaz beste egitea galarazteko beharrezko mugimendua baizik. Klase politikoak, enpresen buruzagiek, sindikatuak... eginkizun garrantzitsua dute iraganeko, oraingo eta etorkizuneko belaunaldietara irekita egongo den ekonomia eraikitzeke lanean. Erreferentzia berria izateko, ordea, bost erronkari egin beharko die aurre:

- Hizkuntza erkidea sortzea, eta inpaktuak neurtzeko eta alderatu, garatu eta sustatzeko aukera emango duten irizpide kuantifikagarriak jorratzea (indizeak, neurriak, ikerketak..).
- Jardunbide egokiak partekatzea, ikasgaiak, ereduak eta inspirazioak ateratzeko.
- Operatiboa izatea eta ikuspegi hori arazo handietan ezartzeko ekinbideak eta bide-orriak eskaintzea.
- Unibertsala izatea eta ahalik eta jende eta talde gehien (batez ere gazteria) erakartzea, utziko diegun mundua eraikitzeke lanean inplikarazteko.
- Ahalik eta gehien hedatzea, erreferentziako eredu aitortua bihurtzeko.

Inpaktukoa

«Konbergentzia handiaren» ekonomia izan nahi du, hainbat jardunbide hibridatzeko potentzialtasuna dela eta. Hala, dagoeneko ez dabilzan ereduak burutzeko esparrua izan beharrean, berrikuntza-eremua eraiki nahi du, batez ere gizarte-ekintzaitzaren figuran oinarrituta (adibidez, Ashoka). Hau da, negozioan garapen sozialaren

osagaia azpimarratzen du. Ildo horretaz ari garenean, normalean «*venture philanthropy*», «*social business*», «*impact investing*», «*social impact bonds*» eta abar ditugu aipagai. Megajoera horietako prozesu berriak zuzendu nahi dituzten erakunde eta taldeak dituzte aipagai termino horiek, guztiak ere ardatz nagusi baten inguruan: enpresaren gizarte-berrikuntza inpaktua (Sinnple).

Sorkuntzaketatasunaren eta «kapitalismo iraunkorraren» eskala aldatzeko logikan eraikitzen da inpaktuko ekonomia. Enpresaren gizarte-erantzukizun klasikoa ez da inolaz ere optimista eta, beraz, enpresei beraien balio-kateak (B Corp) berriz pentsatzen lagundu behar diegu. Ildo beretik, gizarte- eta finantza-itzulkina eskaintzeko gai diren proiektuak identifikatzen lagundu behar diegu inbertsiogileei. Inpaktuko sektore horren beste joera garrantzitsu eta, beraz, interesgarri bat zera da: finantza-sektore klasikitik talentua erakartzeko gaitasun handia. Izan ere, krisiaren eta zentzua bilatzeko gogoaren ondorioz, geroz eta profesional gehiago hurbiltzen dira «inpaktura». Zalantzarik gabe, finantzaketa-ingeniaritzaren berrikuntza handia eragingo du horrek (adibidez, KIVA).

Guztion onerako ekonomia

[Guztion onerako Ekonomia](#)ren helburua zera da: enpresak nahiz gizabanakoak ondasun komunera bideratuko dituzten balioak sortzeko lege-esparru loteslea ezartzea, partaideentzako pizgarriak ere eskainiz. Gaur egungoa ordezkatzeko duen sistema ekonomiko baten oinarritzko elementuak betetzen ditu, eta antzeko sistemekin sinergia jorratzeko aukera ere ematen du (Bertelsmann fundazioak egindako inkestaren arabera, alemaniarren % 80k eta austriarren % 90ek ordena ekonomiko berri bat espero dute). Guztion onerako ekonomia merkatu-sistemaren eredu bat da, baina gaur egungo sistemaren aldean, enpresa pribatuen arrazoi eta helburuak aldatuta: irabazien bila eta lehian oinarritu beharrean, ondasun komuna eta lankidetzaz izango dira beraien asmo eta helburu.

Gure harremanak azaleraztzen dituzten balioetan (konfiantza, ardura, estimua, demokrazia, elkartasuna eta lankidetzaz) oinarrituta eraikitzen da; Ondasun Komunaren Balantzea 4.0 erabiltzen da giza jokabide horiek neurtzeko; eta hainbat pizgarri eta abantaila legal ere eskaintzen ditu sistemak. Merkatuaren anbizioaren etika irauli egingo da, eta Ondasun Komunaren Balantze osoa izango da enpresaren arrakastaren lehen irizpidea, orain arte izan den mozkinaren ordezkari (hau da, soilik dirua zenbatu beharrean).

Prozesua 2010eko urrian hasi zen eta honako hauek dira guztion onerako ekonomira bideratutako ordena ekonomiko berriari buruzko eztabaidaren hasierako 20 puntuak:

- Ondasun Komunaren Ekonomiaren oinarritzko balioak
- Pizgarrien esparrurako koordinada-aldaketa
- Ondasun Komunaren balantzea
- Ondasun komunera jotzea saritzea
- Finantza-balantzearen soberakinen erabilera
- Hazkunde- edo anaxio-presioa askatzea
- Beste enpresa batzuekiko elkarlana eta elkartasuna
- Diru-sarreraren eta jabetzen aldeak murriztea
- Enpresa handien demokratizazioa eta jabetzakidetasuna
- Ondasun demokratikoak
- Banku demokratikoa
- Elkarlan monetario globala
- Natura desjabetzea
- Oinatz ekologikoa murriztea
- Ordainpeko lanaldia murriztea
- «Urte sabatikoa»
- Demokraziaren garapena
- Konbentzio demokratikoak
- Derrigorrezko bost irakasgai gehiago
- Gizarte-kudeaketako kompetentziak

Gizarte Ekonomia

[Gizarte Ekonomia](#) enpresa pribatu batzuek dagoeneko txertatzen duten enpresa-eredua da. Demokraziaren, ekitatearen eta kudeaketa parte-hartzailearen printzipioetan oinarritzen da, eta kapitalaren ginetik jartzen ditu lana eta giza faktorea, hala erabakiak hartzeko prozesuetan nola etekinak banatzeko orduan. Eredu horren formula juridikorik hedatuenak kooperatibak eta lan-sozietateak dira, eta efizientzia ekonomikoa eta eskuratutako aberastasuna gizartean banatzea dira beraien helburuak.

Gizarte Ekonomiari buruzko 5/2011 Legeak zedarrizten du Espainiako gaur egungo ekonomia sozialaren esparrua. Zalantzarik gabe, sektorea aitortzeko, ikusarazteko eta garatzeko inflexio-puntua ekarri du lege horrek, bai Estatuan bertan, bai Europar Batasunean. Legearen testuak honela definitzen du Ekonomia Soziala: printzipio jakin batzuetan oinarrituta, interes orokor ekonomikoa edo soziala, edota biak, bilatzen dituzten erakundeek esparru pribatuan jorratzen dituzten ekonomia- eta enpresa-jarduerak dira.

Honako hauek dira jardun horren printzipioak:

- Pertsonen eta xede sozialaren lehentasuna, kapitalaren aurretik: kudeaketa autonomo eta gardena, demokratikoa eta parte-hartzailea; erabakiak hartzean, pertsonak eta gizarte-xedearen arabera erakundeari egindako ekarpenak lehenestea, kapital sozialari egindako ekarpenen aurretik.
- Jarduera ekonomikoaren bidez eskuratutako emaitzak banatzean, batez ere bazkide eta kideek egindako lana eta emandako zerbitzu eta jarduerak hartzen dira aintzat. Era berean, eta hala badagokio, erakundearen gizarte-xedera ere bideratzen dira.
- Barne-elkartasuna eta gizartearekiko elkartasuna: erakundearen konpromisoa tokiko garapenarekin, emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunarekin, gizarte-kohesioarekin eta gizartean baztertuta gelditzeko arriskua duten pertsonen gizarteratzearekin, kalitateko enplegu egonkorrarekin, laneko eta etxeko bizitza uztartzearekin eta iraunkortasunarekin.
- Botere publikoekiko independentzia.

Legeak xedatzen duenez, Ekonomia Soziala izeneko enpresa multzoan kokatzen dira kooperatibak, lan-kooperatibak, mutuak, enplegu-zentro bereziak, gizarteratzeko enpresak, arrantzaleen kofradiak, elkarteak (batez ere desgaitasunaren eta gizarteratzearen alorrean ari direnak) eta fundazioak. Azken buruan, arrazionaltasuna eta gizarte-aurrerakuntza bateragarriak direla, eta enpresa-efizientzia eta gizarte-erantzukizuna eskuz esku joan daitezkeela erakusten dute Ekonomia Sozialeko enpresek.

Gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioa

Ekonomia tradizionalak asegabe uzten dituen beharri zehar erantzuten dieten jarduerak biltzen ditu [Ekonomia solidarioak](#). Egitura juridiko anitzak badituzte ere, gizarte-loturak biltzen ditu enpresa horiek denak. Ekonomia tradizionalarekiko aldeari dagokionez, errentagarritasunari eta merkatu-ekonomiari lotutako aldeak dira. Oro har, elkartasun-ekonomiaren egiturek hiru baliabide mota biltzen dituzte: salmentengatik sarrerak, laguntza publikoak eta boluntariora.

Kontzeptu horren inguruko esperientziek eta diskurtsoek potentzialtasun eraldatzailea azpimarratzen dute, batez ere ekonomia kapitalistaren ordezkotza aukera gisa. Bi korrante edo tradizio nagusi ditu: Latinoamerikakoa eta Europakoa. BBi «eskolen» artean badira ñabardura batzuk, kontinente bakoitzaren historian eta testuinguruan justifikatzen direnak. Latinoamerikaren kasuan, elkartasun-ekonomia gizarte zuzenago baten alde egiteko tresna da, eta kapitalismoari egiten dion kritika Europako korrontean baino askoz ere nabarmenagoa da. Izan ere, batzuetan «herri-ekonomia» eta «lanaren ekonomia» ere esan izan zaio, lan-indarrak kapital-metaketaren logikaren gainetik duen garrantzia azpimarratzeko. Europaren kasuan, gizarte-ekonomia zaharraren zati handi bat pixkanaka instituzionalizatuz joan delako sortu da, hein handi batean, elkartasun-ekonomia berria. Kooperatiba batean sor daitezkeen kontraesanak eta bateraezintasunak gainditzeko (nazioartekotze-prozesuak, adibidez), ekonomiaren ikuspegi zabalagoa eta, batik bat, askoz ere konpromiso etiko handiagoa erabiltzen dituzte.

Gai berriak era dinamikoagoan sartzeko eta lotzeko gaitasuna erakutsi du elkartasun-ekonomiak. Horrenbestez, ez da arraroa esparru horretan ari diren pertsonen generoari buruz, trukean edo tokiko monetan oinarritutako truketze-sistemei buruz, banaketaren esparruari buruz, bidezko merkataritzari buruz, gizarte-merkatuei buruz, kontsumo arduratsuari buruz eta finantza etikoei buruz hausnartzea, beste gai askoren artean.

Jardunean eta besteekiko eztabaidan oinarritzen da, egungo ekonomia-eredua eraldatu eta bidezkoagoa eta iraunkorragoa izango den beste eredu baterantz eramateko asmoz. Horixe baita, azken buruan, elkartasun-ekonomiaren azken helburua.

Feminista

Ekonomiaren barneko azterketa-esparru berezia da eta ez du zerikusirik genero-ekonomiarekin. Genero-ekonomiaren eta [ekonomia feminista](#)ren arteko desberdintasun nagusia zera da: lehenengoa gizon eta emakumeen arteko desberdintasun ekonomikoak salatzen bideratuta dagoela, eta bigarrenak, ordea, azterketa ekonomikoaren kontzeptu nagusiak birformulatzen dituela.

[Iritzi-korrante horrek ekonomiaren ideia zabaltzen](#) eta sistema ekonomikoaren esparru ikusezinak sartzen ditu barnean. Hau da, batik bat emakumeek soldatarik gabe, eskubiderik gabe eta gizarte-aitortzarik gabe egiten dituzten lanei lotutako esparruak. Premisa horretatik abiatuta, dirua mugiarazten dituzten ekintzez gain, behar pertsonal guztiak erdigunean jartzearen premia aipatzen du. Hau da, merkatuak erdigunetik atera eta pertsonak kokatzen ditu beraien ordean. Ekonomia feministak garrantzi handia aitortzen die gizon eta emakumeen arteko desberdintasun ekonomikoari; izan ere, sistema ekonomikoa antolatzen duten egituren artean kokatzen du generoa. Luzaro ezkutarazi den emakumeen lana ekonomiaren arretagunean kokatzea proposatzen du, etxeko lanez gain (sukaldea egitea, garbitzea, erosketak egitea eta abar), emakumei lotutako beste lan batzuek gain (edoskitzea, haurrak elikatu eta haztea...) eta eskuarki emakumeen esku gelditzen diren lanez gain (haurrak nahiz adinekoak eta gaixoak zaintzea), familiaren osasun onerako eta beste lan batzuk (produktiboak izan ala ez) betetzeko ezinbestekoa den oreka afektibo eta emozionala ere eskaini dituelako.

«Trantsizioa»

Trantsizioko lurraldeen mugimendua 2006an abiatu zen Britainia Handiko hiri txikietan, eta petrolioaren tontorrari eta klima-aldaketari erantzuteko beste modu berritzaile bat jarri nahi du abian. Nork bere lurraldean dituen baliabideak erabiliz, petrolioaren amaierari aurre egiteko zer egin dezaketen hausnartzeko eskatzen zaie pertsonari. Eta, ildo beretik, baliabide horiek baliatzeko moduz hausnartzeko ere eskatzen zaie, gobernuaren erabakien zain egon gabe, aldaketa ahalbidetuko duen indar-harremana sortuz. «Trantsizio-ekimeneen» ondorio positiboa azpimarratu behar da (<http://www.transitionnetwork.org/>), duela urte gutxi hasi eta abiada bizian biderkatzen ari baitira. «Europako eta Ipar Amerikako ia 800 udalerrri Trantsizio Ekimentzat izendatu dituzte ofizialki. Izan ere, badira trantsizioko basoak ere». Komunitate horiek zereginen zerrenda bat sortzen dute, lehentasunen ordena zehaztuta. Eskura dituzten baliabide eta tresnak ez ezik, eskuratu nahi dituzten helburuak ere finkatzen dituzte.

«[Eremu geografiko](#) bateko pertsonak biltzen dituelako» da «indartsua» eredu hori (Betanzos, A Coruña, 2016ko edizioa). Pertsona horiek orotariko interes eta gaitasunak dituzte, baina batera jarduten dute, interdependenteak direlako eta bizi diren testuinguruarekin konprometituta daudelako, haren konplexutasun osoan». Agendak eta lehentasunak erabakitzeko prozesu demokratikoa ere bada trantsizio-ereduaren ezaugarrietako bat: «[Gune irekiaren metodoa](#)» ([Open Space](#)) da, «*guztiei, eta ez soilik ozenen hitz egiten duenari, ahotsa ematen*» dien sistema da.

Desazkudearena

Esangurari buruz adostasun osorik ez badago ere, [Vicente Honorantek](#) egindako definizioa baliagarritzat jo daiteke: «lehengaien, energien eta espazio naturalen kontsumo osoa murriztean oinarritzen den kudeaketa indibidual eta kolektiboa da desazkudea». «Garapen iraunkorra» terminoak ez bezala, «desazkudea» terminoak ez du tarterik uzten, nahi ez dugun gizarte-eredu hau luzatu nahi dutenek «birziklatzeko». Izan ere, hitz hori zalantzarik gabe kontrajartzen da gure mundu produktibo/kontsumistarekin, baina, aldi berean, bilatzen dugun mundua eraikitzeari buruzko eztabaidarako espazioa irekitzen du.

Desazkudea «gerrilla epistemologikoaren» Troiako Zalditik dator (Serge Latouche). Izan ere, ekonomia asmatuaren hazkunde mugagabea defendatzen duten diskurtso sozial, narzisista, mediatiko, instituzional, militante eta politiko guztien baitan dagoen mezua [deuseztatzen](#) du. Desazkudearen ideiak totalitarismo ekonomizista, garapenzale eta aurrerakuntzazaletik ihes egiteko gonbidapena luzatzen digu, argi eta garbi uzten baitigu hazkunde ekonomikoa ez dela gizakiaren eta gizartearen betebeharrak naturala, kontsumoaren gizartearena baizik. Izan ere, kontsumoaren gizarteak eredu hori hautatu eta mito fundatzaileetat barneratu du.

Hasiera batean hitza horretarako asmatu ez bazen ere, bereganatzen duten taldeentzako tresna politikoa ere bada; errealitateaz hausnartzeko tresna, eta errealitatean eragiteko tresna. Ekintza politikorako proiektu baten sorrera dakar, bortizkeriaren aurkako proiektua, boluntarioa, emantzipazio ideologikoko eta aurrerakuntzaren ideia gainditzeko proiektua. Ondasun komunak eta harreman-ondasunak, zaintzak, elkarlana, elkarrekikotasuna, mutualitatea eta kultura-aniztasuna azpimarratzen dituen proiektua, Lurraren muga biofisikoak onartzen dituena, ekoizpen-prozesuetan eta kontsumo-zikloetan erabiltzen diren [energia](#)- eta materia-fluxuak murriztearen aldekoa.

Nazioarteko adibideak

Ekonomia mota	Adibidea	Informazio gehiago
Berdea	<p>URRE BERDEA</p> <p>Kolonbiako meatzarien familiek familientzat eurentzat sortutako enpresa-programa da. Urrea eta platinoa artisau-eran erauztean, gizartearekin eta ingurumenarekin arduratsu jokatzeko duten jardunbideak egiazatzeko lehen sistema sortu zuten.</p>	<p>http://www.eea.europa.eu/publications/europes-environment-aoa/chapter3.xhtml</p>
Urdina	<p>NOVAMONT</p> <p>Enpresa horrek baliabideen erabilera efizientean oinarritutako bioekonomia-eredua sustatzen du, lurraldea berroneratzeko bidean.</p> <p>Lehiakorrak ez diren edo utzita dauden industrialdeak birmoldatu egiten ditu, gero balio erantsi handiko produktuak egingo dituzten biofindegiak aktibatzen. Horrela, ingurumen-inpaktu txikia eragiteaz gain, lanpostu berriak sortzea ere lortzen du.</p>	<p>http://www.theblueeconomy.org/</p> <p>http://www.zeri.org/</p> <p>www.rtve.es/alacarta/videos/la-aventura-del-saber/aventura-del-saber-economia-azul/2021798/</p> <p>http://www.banrepcultural.org/agua/la-economia-azul</p>
Zirkularra	<p>SUSTAINER HOMES</p> <p>Hondakinak erabiliz, moduluzko etxe iraunkorrak eraikitzen dituzte. Eraikuntza estandarren aldean, CO2 isuriak % 90 murriztea lortzen dute.</p>	<p>www.ellenmacarthurfoundation.org/es/economia-circular/concepto</p>

<p>Funtzionaltasunarena</p>	<p>MICHELIN</p> <p>Bere pneumatikoak dituzten ibilgailuek egindako kilometroak fakturatzen ditu, pneumatikoak eurak saldu beharrean. Fotokopiagailuak saldu beharrean, erabilera saltzea eta abar.</p> <p>XEROXek eta JC DECAUXek ere halako planteamenduak erabiltzen dituzte.</p>	<p>Funtzionaltasun- eta lankidetzak ekonomiaira jotzeko ibilbidea, garapen iraunkorraren ikuspegitik:</p> <p>http://www.crepe-efc.com/wp-content/uploads/2015/12/CREP-E-NOTE-EFC-ESP.pdf</p>
<p>Digitala</p>	<p>NASDAQ eta ondoren sortu diren negozio berrietarako balore-burtsak. Burtsa horiek aktibo fisiko garrantzitsurik ez duten enpresen burtsa-transakzioak burutzeko sortu ziren. Halakoetan, akzioak parametro ukiezinen arabera kotizatu eta baloratzen dira; adibidez, ezagutza, informazioa, berrikuntza eta abar.</p>	<p>www.monografias.com/trabajos82/economia-digital/economia-digital.shtml</p>
<p>Elkarlanekoa / Partekatua</p>	<p>THREDUP arropa trukatzeko</p> <p>ZIPCAR, SIDECAR, LYFT, BLUEMOVE, GETAROUND eta UBER autoa partekatzeko</p> <p>LENDINGCLUB mailegu ekonomikoetarako</p> <p>HIPMUNK eta AIRBNB bidaiariak ostatu aurkitzeko</p> <p>COMPARTOPLATO, SHAREYOURMEAL janariak trukatzeko.</p> <p>KICKSTARTER eta VERKAMI, besteak beste, finantzaketa kolektiboa eskuratzeko plataformak dira.</p>	<p>www.consumocolaborativo.com/directorio-de-proyectos</p> <p>http://magazine.ouishare.net/es/tag/economia-colaborativa</p> <p>http://www.consumocolaborativo.com/2012/04/27/plan-para-una-sociedad-p2p-el-estado-socio-y-la-economia-etica</p>

<p>Irekia (kode irekia) eta askea (ezagutza askea)</p>	<p>GOTEO</p> <p>Crowdfunding plataforma da, gardentasuna, ezagutza irekia eta informazio askea sustatzen duten open sourceko tresnak sortzeko eta, horrela, lankidetzako sare etikoak sortzeko.</p>	<p>https://www.goteo.org/blog/1236</p>
<p>Onbideragarria</p>	<p>ETICOM</p> <p>Telekomunikazio-entresa horrek planetarekiko errespetua eta harreman iraunkorra txertatu du estatutuetan. Era berean, estatutuetan txertatua du baliabideak eta mozkin posibleak zuzenago erabiltzeko eta banatzeko helburua.</p>	<p>https://eticom.coop</p> <p>http://www.yorokobu.es/de-la-economia-verde-a-la-economia-marron</p>
<p>Positiboa</p>	<p>Politika ekonomikoak eta beraien emaitzak onarpen-mailaren arabera ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen da ekonomia positiboa. Ekonomia positiboa honela definituko litzateke: zer den ekonomia versus zer izan beharko lukeen. Adibidez, moneta masaren hazkundeak inflazioan nola eragiten duen deskriba dezake, beharbada, teoria ekonomikoren batek; alabaina, ez du jarraitu beharreko politikari buruzko inolako informaziorik ematen.</p>	<p>http://positiveeconomy.co/fr/</p>
<p>Inpaktuarena</p>	<p>UNLTD, ASHOKA, UPSOCIAL, BOLSASOCIAL, HUBS eta beste eragile ugari biltzen ditu gorabidean dagoen ekosistema berri horrek. Helburua: bere balio ekonomikoa, soziala, ingurumenekoa eta kulturala neurtzeko, esparru horietako bakoitzean duten eragina neurtzen duten gizarte-entpresei laguntzea.</p>	<p>http://www.forbes.com/sites/skollworldforum/2013/08/05/what-is-the-impact-economy-anyway/#23ed86755668</p>

<p>Guztion onarena</p>	<p>GUZTION ONERAKO EKONOMIAREN ALDEKO GIZARTE ZIBILAREN MUGIMENDUA</p> <p>Enpresa eta udalerrientzako ordezko aukerak jorratzen dituzte. Asmo ekonomikoa eta arrakastaren ebaluazioa guztion onera bideratutako balioen arabera ebaluatzen ditu.</p> <p>Esparru politikoan, gizaki guztien beharrezko bizitza ekitatiboa ahalbidetzeko lege-aldaketak sustatzen ditu. Esparru sozialean, sistema aldarazteko kontzientziazio-ekimena da.</p>	<p>http://economia-del-bien-comun.org/es</p> <p>http://economia-del-bien-comun.org/es/content/balances-y-ejemplos</p>
<p>Gizarte-ekonomia</p>	<p>CAJAMAR KOOPERATIBA TALDEA</p> <p>20 finantza-erakunde sortutako talde bateratua. Espainiako kreditu-kooperatiba nagusia da: 4 milioi bezero eta 1,4 milioi bazkide, 1.277 bulego eta 6.431 langile ditu 41 probintzian.</p> <p>ARLA FOODS</p> <p>Nazioarteko kooperatiba horrek Danimarkan du egoitza, eta 13.500 jabe ditu guztira. Eskandinaviako herrialdeetako esneki-ekoizlerik handiena da, eta mundu osoan seigarrena.</p>	<p>http://www.cepes.es/</p> <p>https://www.cajamar.es/es/comun/</p> <p>www.socialeconomy.eu.org</p> <p>http://www.arlafoods.es/</p>
<p>Gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioa</p>	<p>Gizarte-ekonomiarekin eta ekonomia solidarioarekin bat aritzeko 1.000 ADIBIDE (nazioartean)</p> <p>REAS. Ekonomia Alternatiboko eta Solidarioko Sareen Sarea.</p> <p>AERESS (Gizarte-ekonomiako eta Ekonomia solidarioko Berreskuratzailen Espainiako Elkarte).</p>	<p>http://www.economiasolidaria.org/documentos/1000_ejemplos_para_actuar_con_la_economia_social_y_solidaria_ess</p> <p>http://www.economiasolidaria.org/</p> <p>http://www.aeress.org</p>

<p>Feminista</p>	<p>ZAINZENGATIKO KONPENTSAZIO ESTRATEGIA (CAREGIVERPARITY STRATEGY)</p> <p>Bizitzaren aldi batzuetan senideak zaintzen emandako denbora dela eta, norbaitek lan-merkatutik urrundu behar izaten duenean, egoera horrek eragiten duen diru-sarreraren eta eskubide sozialen gabezia orekatzeko neurriak ezartzea.</p> <p>CONVERGENCE</p> <p>1984az geroztik, tokiko administrazioen garapen sozialaren eta ekonomikoaren alde aritzen da Convergence, aholkulari adituen kooperatiba. Funtsezko esparruetan (hala nola osasunean, garapen ekonomiko eta komunitarioan eta justizia sozialean) eskarmentua eta ezagutzak biltzen ditu gure aholkulari adituen taldeak.</p>	<p>http://www.milenta.org/datos/2351/permisos_parentales_185588.pdf</p> <p>http://www.convergence.coop/home/index_f.html</p>
<p>Trantsiziokoa</p>	<p>TRANSITION NETWORK</p> <p>“Trantsizioko”ereduan oinarrituz, komunitateek euren burua antolatzen, CO2 isuriak murrizten eta erresilentzia garatzen lagundu, inspiratu, lotu, bultzatu eta trebatzen ditu karitatezko erakunde horrek.</p>	<p>https://transitionnetwork.org</p>

<p>Desazkundearena</p>	<p>LA FABRIQUE DES COLIBRIS (KOLIBRIEN FABRIKA)</p> <p>Herritarrek elkarri laguntzeko plataforma, pertsona bakoitzak bere «ekarpena» egiteko aukera eskaintzen duena. Frantzia osoan, han eta hemen, ekimen ugari frogatzen dute bestelako bizimodua posiblea dela, eta badirela horretarako bideak: ondasun- eta zerbitzu-trukeak, hezkuntza positiboa, energia-zorroztasuna, autokontsumorako nekazaritza, ekoeraikuntza, tokiko ekonomiak... Euren proiektuen bidez, gure gizartearen ildo ekologikoa bultzatzen duten gizon eta emakumeen lana babesteko sortu du Colibris-ek Fabrika.</p> <p>VESPERA DE NADA TOKIKO ELKARTEA</p> <p>Galizian Trantsizioaren eta Desazkundearen Topagune izan nahi duen ekitaldia da. Espainiako estatu osoko eta Portugaleko ekimen eta pertsonen partaidetza biltzea espero dute.</p>	<p>http://www.colibris-lemovement.org/</p> <p>http://www.decroissance.org/</p> <p>http://www.decrecimiento.info/2016/09/encuentro-transicion-decrecimiento-2016.html</p>
------------------------	---	--

Euskal Herriko adibideak

Ekonomia mota	Adibidea	Informazio gehiago
Berdea	<p>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (BFA)</p> <p><i>Erosketa Publiko Berderako Estrategia Integrala</i> jorratu eta ezarri egin du.</p>	<p>Euskadiko ekonomia berdeari buruzko txostena: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/4741/Economia_verde_Euskadi.pdf?1402398083</p>
Urdina	<p>AZARO FUNDAZIOA</p> <p>Ikuspegi sistemikoan oinarrituta, Ekonomia Urdineko garapen-ereduak sustatzen ditu Lea-Artibai eskualdean. Helburua: Haien eskualdeetan eta eremu hurbiletan sortu eta erabiltzen diren baliabideei erabilera iraunkorra ematea, loturak sortu eta hondakinei balio erantsia emateko.</p>	<p>http://news.azarofundazioa.com/eu/blue-albistekak</p>
Zirkularra	<p>KOOPERA</p> <p>Ehun, jostailu, liburu eta etxeko tresna elektriko eta elektroniko txikien bereizketa eta birziklapena optimizatu egin du, ahotsaz kontrolatutako ekipamendu automatizatuari esker.</p>	<p>Ekonomia zirkularra EAEn:</p> <p>http://www.ihobe.eus/Publicaciones/Ficha.aspx?IdMenu=750e07f4-11a4-40da-840c-0590b91bc032&Cod=b80ed84c-0874-456f-b821-89b1741db9b2&Idioma=eu-ES</p>

<p>Funtzionaltasunarena</p>	<p>GETXOBIZI</p> <p>Sistema honen bidez, konbinatu egiten dira bizikleta publikoen mailegua eta bizikleta pribatuen aparkamendua. Getxo barnean mugikortasun iraunkorra bultzatzeko zerbitzu publikotzat pentsatu dute. Getxoko Udalaren ekimena da, <u>Emaús Bilbao SCSl eta Emaús Movilidad Sostenible</u> elkarten eskutik burutzen dutena.</p>	<p>http://getxobizi.com/index.php/eu/</p>
<p>Digitala</p>	<p>TICKETBIS</p> <p>Webgunean mundu osoko ekitaldietarako sarrerak erosi eta saltzen dira. Milioi bat sarrera baino gehiago eskaintzen ditu, zaletuek erraz eta seguru eros eta saltzeko moduan. Merkatu seguru eta gardena eratuz, sarreren erosketa eta salmenta eraldatu egin du plataforma horrek.</p>	<p>http://www.ticketbis.com/</p>
<p>Elkarlanekoa / Partekatua</p>	<p>WIKITOKI</p> <p>Elkarlaneko jardunbideen laborategia da, Bilbon. Jardun, hausnartu eta ekiteko, ikertzeko, asmatzeko eta prototipoak osatzeko komunitatea. I+G sozial / kultural / ekonomiko / politiko gisa aritzen da, "kidetasuna" izanik guztien arteko lotura. Ekoizteko (sortzeko, lan egiteko, ekiteko, ikertzeko), Birproduzitzeko (gizartean, harremanetan) eta Zabaltzeko (prestakuntza, erakusketa) eremu fisikoa.</p>	<p>http://wikitoki.org/eu/</p>

<p>Irekia (kode irekia) eta askea (ezagutza askea)</p>	<p>CROWDSASUNA</p> <p>EAEn osasunaren eta bizitza osasungarriaren esparruan ekimen berritzaileak kolektiboki sustatu eta finantzatzeko arrisku-kapitalerako deialdia. Ekimen horiek baldintza bat dute: emaitzak askatasunez eta era irekian erabili eta erreplikatzeko baimena ematea.</p>	<p>https://eu.goteo.org/call/crowdsasuna2014</p> <p>https://www.colaborabora.org/wp-content/uploads/sites/7/2013/04/EUSKADI_COPIADO1.pdf</p>
<p>Onbideragarria</p>	<p>ARALAR PERMAKULTURA</p> <p>1,6 hektareako lursail emankorra dute, 500 metroko altueran. Ekitatearen permakultura-printzipioa errespetatzen dute euren oinatz ekologikoaren kuotaren bidez. Eskuzko tresneria erabiltzen saiatzen dira, eta soilik noizbehinka erabiltzen dute tresna elektriko txikiren bat edo beste. Energiaren murrizketa eta petrolioaren tontorra kontuan hartzen dituzte. Erresilentzia sustatzeaz gain, teknologia egokiak erabiltzen dituzte: bio-ongarriak prestatzea, tresnak eta ordezeko piezak «fabrikatzeko» 3Dko inprimagailuak... Elikadura- eta teknologia-subiranotasuna aldarrikatzen dute eta horretan oinarrituta eta horretarako aritzen dira.</p>	<p>http://www.permaculturaaralar.com/el-reto-economico/</p>

<p>Positiboa</p>	<p>TERNUA</p> <p>Enpresa-jarduerak inpaktu negatiboak eragin ditzakeela jakitun, arduraz barneratu eta ahalik eta gehien murrizten ahalegintzen dira. Arduraz jardunez, gizarte iraunkorrean laguntzeko konpromisoa dute. Enpresako kide guztiek barneratuta duten printzipio hori bat dator beraien negozio-ikuspegiarekin. Hala, garapen iraunkorra sustatuko duen produkzio etikoarekin lotuta daude, ingurumenean eragiten duten inpaktua ahalik eta gehien murrizteko asmoa tarteko.</p> <p>KARRAKELA</p> <p>Tokiko produktuak eskaintzen dituzte, zuzenean ekoizlearengandik eroslearen eskuetara eta era iraunkorragoan. Nafarroako lehen kooperatiba integrala dira, ekoizle, saltoki eta kontsumitzaileak biltzen baititu kooperatibak.</p>	<p>http://www.ternua.es/eu/ternuari-buruz/iraunkortasuna</p> <p>http://karrakela.com/blog/ekonomias-del-futuro/</p>
<p>Inpaktuarena</p>	<p>IMPACT HUB DONOSTIA</p> <p>Donostiako gizarte-ekintzaileen komunitatea. Tokiko erronkei nahiz erronka globalei heltzen diete eta hainbat esparrutan aritzen dira: besteak beste, kulturen, medikuntzan, ingeniartzan, teknologian, soziologian, hezkuntzan eta arkitekturan. Mundu osoko 7.000 ekintzaile baino gehiago lotzen dituen mundu-plataforma bateko kideak dira.</p>	<p>http://donostia.impacthub.net/es</p>

<p>Guztion onarena</p>	<p>EUSKADIN GUZTION ONAREN EKONOMIA SUSTATZEKO ELKARTEA</p> <p>2012az geroztik ari dira lanean, guztion onaren ekonomia zabaldu, garatu eta egokitu nahirik. Euskadiko herri eta eskualde guztietara iritsi eta bertan errotzea da asmoa.</p>	<p>http://www.ebceuskadi.org/</p>
<p>Gizarte-ekonomia</p>	<p>KONFEKOOP, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa. EAEko kooperatiben ordezkari goren da.</p> <p>ASLE, Euskadiko Lan-sozietateen Elkarte. Lan-enpresen patronal-eginkizuna betetzen du, eta ordezkari-maila du Euskal Autonomia Elkartearen.</p> <p>GIZATEA, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte. 2007ko azaroan jaio zen, REAS Euskadik Equal Lamegi proiektuaren esparruan bultzatuta. Helburua: enpresen arteko lankidetzaren sustatzea, sektorea hobetzen eta indartzen laguntzea, eta erakunde publikoetan eta gizartearen aurrean ordezkari bultzatzea.</p> <p>FUNKO, Fundazioen Euskal Konfederazioa fundazioen alorrean lan egiten zuten hamar lagunek bultzatu zuten, indarrak biltzeko asmoz. Eusko Jaurlaritzaren legeria berezia egonik, EAEko fundazioek Estatuko gainerako fundazioek ez bezalako errealitatea dute.</p>	<p>http://www.konfekoop.coop/?id_ioma=eu</p> <p>http://asle.es/</p> <p>http://www.gizatea.net/eu/</p> <p>http://www.funko.es/Index.asp?lng=eu</p>

<p>Gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioa</p>	<p>REAS EUSKADI (Gizarte-ekonomiako eta ekonomia solidarioko sarea)</p> <p>REAS NAFARROA (Gizarte-ekonomiako eta ekonomia solidarioko sarea)</p>	<p>http://www.economiasolidaria.org</p>
<p>Feminista</p>	<p>EUSKAL HERRIKO EKONOMIA FEMINISTAKO ESKOLAK</p> <p>Mundubat Fundazioak elkar ezagutzarako Euskal Herriko Ekonomia Feministako Eskola esperientziak sistematizatu ditu Euskal Herri mailan.</p> <p>Bertako abiapuntua eta helmuga, taldean politizatzen den emakumeen bizi-egoera da, zenbait dimentsio egunerokotasunean hautsi, berriro adierazi eta berrasmatu nahian.</p>	<p>http://www.mrafundazioa.eus/eu/artikuluak/zer-da-ekonomia-feminista</p> <p>https://www.traficantes.net/sites/default/files/pdfs/map40_subversion_feminista.pdf</p> <p>http://www.mundubat.org/tag/escuelas-de-ekonomia-feminista</p>
<p>Trantsiziokoa</p>	<p>BUTROI BIZIRIK</p> <p>Mungialdean abian jarri den mugimendua, eraldaketa pertsonala eta soziala sustatzeko. Guztion onaren alde eta elikadura-, energia-, teknologia- eta ekonomia-subiranotasunaren alde aritzen dira, horiek guztiak naturarekin bat garatzeko asmoarekin.</p>	<p>http://www.butroientransicion.org/eu/hasiera/</p>

<p>Desazkundearena</p>	<p>DESAZKUNDEA</p> <p>2009an sortu zen Bilbon, «Soiltasun boluntarioa eta desazkundera» dokumentala proiektatu eta gero. Gaur egun Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan dago eta desazkunderako proposamenak hedatu eta gauzatzea da asmoa.</p>	<p>Bizimodu iraunkorrean oinarritutako gizarte zuzen eta ekitatiboa eraikitzeko Euskal Herritik egindako azterketa eta aldarrikapenak: https://www.decrecimientoybuenvivir.info/wp-content/uploads/sites/4/2016/06/EHtik-eraiki-EUS_WEB.pdf</p> <p>http://desazkundera.org/langua/ge/eu/</p>
------------------------	---	---